

## HAUR LITERATURAREN GARRANTZIA

Haur literaturak garrantzi izugarria du. Izan ere, haurren sormena, adierazkortasuna, irudimena eta abar garatzeaz gain, jarrerak eta baloreak bultzatzen ditu; haurri mundua ezagutzen, gaitasun kritikoa eta estetikoak garatzen, kontzientzia hartzen eta, azkenik, erabakiak hartzen laguntzen dio.

Kultura guztietan, ipuinei esker haurrek urruneko munduak edo beren munduko gauza konplexuak ezagutzen dituzte, eredu sinplifikatuen bidez. Ipuinek, gainera, haurri bere pentsamendua ezagutzen eta egituratzen laguntzen diote, ipuinetan arazoak dituzten haurrak edo izakiak (animaliak, izaki fantastikoak) azaltzen direlako sarritan, eta haurra haiekin identifikatzen delako.

Horrez gain, ipuinek haurren pentsamenduan funtsezkoa den zerbait ahalbidetzen dute: errepikatzea. Haurrentzat ez da nahikoa errealtatea behin ikustea hura ulertu ahal izateko. Film bat behin eta berriro ikusiko du, dena buruz dakien arte. Gainera, filmarekin "jolastu" egingo du, bizitakoa sinbolizatzeko duen gaitasunaren bidez. Prozesu horretan, haurrak egoera hori bizitzeko behar den guztia ikasiko du, zein trebetasun sozialak zein esaldi magikoak, edo gauzen edo errealtateen existentzia edo izenak.

Ipuinak haurri errealtatea arazo baten itxurapean aurkezten dio. Ikasteko eta arazoak konpontzeko eredu bat eskaintzen dio; eredu hori arazoaren identifikazioan, konponbideen bilaketan, erabakiak hartzean eta gertatutakoaren ebaluazioan oinarritzen da. Ipuinak gatazka-egoerak aurkezten ditu, eta haurren trebetasunak probatzen ditu egoera horiek benetakoak balira bezala.

Ipuinak ozen irakurtzerakoan, haurrentzako garrantzitsuak diren gaiak azter ditzakegu. Haurrak identifikatu egiten dira ipuinean deskribatutako emozio eta sentimenduekin. Beraz, hobe da ipuina talde txikietan irakurtzea; haurrek marrazkiak ongi ikusi behar dituzte, eta orrialde bakoitza pasatu ondoren irakurketa geratu egingo dugu, haurrek beren iritziak eman ditzaten.

Batzuetan, ordea, irakurketa talde handitan egin behar da. Orduan, ipuina irakurriko diegu lehenbizi, eta marrazkiak orrialde bakoitza irakurri ondoren edo bukaeran erakutsiko dizkiegu. Gero talde txikiak osa daitezke, ipuinarekin loturiko ideiak eztabaidatzeko.

Beste aukera bat ere badago: ipuina ongi irakurri ondoren, guk geuk konta dezakegu. Pertsonaia guztientzat ahots desberdinak erabiliko ditugu, eta haurrei ipuina antzezteko esango diegu, gorputzaren bidez edo txotxongiloekin. Ipuin osoa antzeztea zailegia izan daiteke haur txikientzat. Luzea bada, zati erraz bat antzez dezakete. Haurrek paperak txandaka ditzakete, nahi duten guztiek ipuinean parte har dezaten.

Ipuin asko gatazkak aztertzeko erabiltzen dira, eta txotxongiloekin antzez daitezke.

Ezin dugu ahaztu liburu batek, eta batez ere ipuin batek, hainbat erabilera izan ditzakeela irakurketa hutsaz gain. Sarritan, beste erabilera horiek interesgarriagoak izaten dira, eta ipuina ulertzen laguntzen dute. Hona hemen aukera batzuk:

- Oraindik irakurtzen ez dakitenei ipuina kontatzea.
- Ozen irakurtzea.
- Azalpenak ematea eta eztabaidatzea.
- Marrazkien edo forma plastikoen bidez gauzak argitzea.
- Horma-irudi bat egitea.
- Antzertiaren, txotxongiloen edo mimoaren bidez antzetztea.
- Ipuinaren jarraipena asmatzea edo haren amaiera aldatzea.
- Pertsonaia bat gertakizun batzuen aurrean jarrera bat hartzen duen norbait bihurtzea.
- Ipuina gai bati buruz hitz egiteko erabiltzea, haurrak motibatzeko.

Indarkeriarekin eta gatazken konponbide baketsuarekin loturiko gai batzuk lantzeko bibliografia txiki bat:

- *Los dos monstruos*. McKee, D. Madril. Espasa Calpe, 1992. Bi munstro ika - mika dabilta, iritzi desberdinak dituztelako. Bien artean dagoen mendia suntsitu ondoren, lagun minak egingo dira.
- *La fuerza de la gacela*. Vázquez Vigo/Gabán, J. Madril. Ed. S.M., 1986. Tigre bat oihanera iritsi da eta animalia guztiak asaldatu ditu. Hainbat gerlari berarekin borrokatuko dira, baina ez dute menderatzea lortuko. Azkenean, gazela hauskor batek tigre ankerra konbentzituko du: elkarriketaren botereari buruzko lezio eder bat.
- *La niña invisible*. García Sanchez, J.L, Pacheco, M.A eta Wensell, U. Madril. Altea, 1988. Herri Berdeko haurrek eta Herri Urdinekoek ez dute nahi Mariaren lagunak izan, bi herrien artean bizi delako. Egun batean Maria ikusezin bihurtuko da, eta bi herriak betirako aldatuko ditu.
- *El hombrecillo de papel*. Alonso, F. Madril. Ed. Susaeta- Miñón, 1990. Neskato batek egunkari zahar batekin panpina bat egingo du, eta panpina bizidun bihurtuko da. Bere gorputza osatzen duten albisteek nahigabetu egingo dute, baina neskatoak eta bere lagunak pozten lagunduko diote.
- *¿A qué sabe la luna?* Gregniec, M. Kalandraka. (Prentsan). Animalia batzuk ilargiak nolako zaporea duen jakin nahi dute, eta hori lortzeko, elkarrekin lanean hasiko dira. Animalia txikienak egiteko garrantzitsuena izango du.

Haur hezkuntzaren etapa gizarte-baloreak garatzeko unerik garrantzitsuenetako bat da; balore horien artean gatazkek konpontzeko indarkeria ez erabiltzea dago. Aipatutako baloreak eguneroko bizitzan eta fantasiak ahalbidetzen duen identifikazioaren bidez garatzen dira.

**Aprendiendo a resolver conflictos en la infancia. Stephanie Judson**